

BEASAINDIK



Beasain Udal

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Beasaingo astearteko azoka, mende bat herria egiten

*Cien años cultivando tradición,
cercanía y futuro*



Zure etxeko atarian
jaso ditzakezu herrian
egindako erosketak

04



Arrancan las obras de
rehabilitación de Bonberia
como nuevo espacio
cultural y la construcción
del nuevo Gazteleku

07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Mende bat beasaindarron zerbitzura

Hilabete honetako udal aldizkariaren gai nagusia astearteko azoka den honetan, ezinbestekoa da mendeurren honek gure herriarentzat duen garrantzia azpimarratzea. Azoka ez da soilik salerosketarako gune bat; gure historiaren, gure ekonomiaren eta gure nortasunaren parte da.

Lehen sektorea eta tokiko ekonomia funtsezkoak izan dira Beasainen garapenean. Baserritarrek gure ondarearen ardatz dira, eta sarritan ahazten badugu ere, herritar edo kaletar askoren jatorria baserrian dago eta gure funtsa lurra lantzen duten pertsona horien esfortzuan dago.

Horregatik, garaian garaiko eta bertako produktuen kontsumoa sustatzea ez da ohitura hutsa; etorkizunarekiko konpromisoa da. Azokaren bidez, ekonomia zirkularra, jasangarritasuna eta harreman zuzenak indartzen ditugu.

Efemeride hau dela eta, Udalak eskatuta, Juantxo Unanua argitalpen berezi bat ondu du astearteko azokaren ehun urteko ibilbidearen gainean. Nire esker zintzoa berari. Bere prestutasuna, borondatea eta umetatik azokari dion maitasuna agerian geratzen dira idatzi horretan. Mimos eta gogotsu egindako lana da, eta merezi du astearteko azokaren testigantza hau idatzita jasota egotea.

Azokan erositakoa etxeko atarian dauden Tori! banaketa jasangarriko takiletara eramateko zerbitzua ere adibide ona da tradizioa eta berrikuntza uztartzeko. Hala ere, ez dezagun ahaztu azokak duen funtzio soziala: elkartzeko, hitz egiteko eta komunitatea egiteko gunea dela.

Zaindu dezagun azoka, zaindu dezagun baserria, eta horrekin batera, gure herriaren etorkizuna.

100 años al servicio de las y los beasaindarras

El centenario de la feria del martes es un acontecimiento clave para Beasain, ya que representa mucho más que un espacio de compraventa: forma parte de la historia, la economía y la identidad colectiva del municipio. La feria pone en valor el primer sector, la economía local y el vínculo con el caserío, origen de gran parte de la ciudadanía. Apostar por el producto local y de temporada es un compromiso con un modelo

económico sostenible y cercano. Con motivo de esta efemeride, el Ayuntamiento ha impulsado una publicación especial de Juantxo Unanua que recoge los cien años de la feria, un trabajo riguroso y emotivo que preserva esta memoria compartida. No olvidemos que, además de adaptarse a nuevos servicios y formatos, la feria sigue cumpliendo una función social insustituible como espacio de encuentro y comunidad.



Centenario del mercado de los martes de Beasain

La feria semanal del martes de Beasain cumple cien años desde su institucionalización en 1926. Con motivo de esta efemeride, el Ayuntamiento publicará una obra elaborada por Juantxo Unanua que recorre el siglo de historia del mercado, su origen y evolución, así como el papel del primer sector y del baserri en la identidad local. El centenario se completa con un programa especial de actividades culturales, divulgativas y gastronómicas en torno a la feria.



OTSAILAK 2 FEBRERO

→ Mahai-ingurua / mesa redonda: "Azoka lehen, orain eta etorkizunean" Igartzako jauregia, 18:00etan.

**Mendeurrenaren
egitaraua**
Programa del
centenario



URTARRILA
2026

Beasaingo astearteko azokaren mendeurrena

Ospakizunetarako, egitarau berezia, mendeurrenaren argitalpena eta argazki erakusketa antolatu dira

Beasaingo astearteko azoka ofizialdu zenetik ehun urte igaro dira. 1926ko otsailaren 2an egin zen lehen azoka ofiziala, eta ordutik hona, gure herriaren garapen ekonomiko, sozial eta identitarioaren parte izan da etenik gabe. Azoka, mende oso honetan zehar, baserritarren eta kaletarren arteko harreman zuzena ahalbidetu duen topagune nagusietako bat izan da.

Udalak, efemeride honekin bat eginez, Juantxo Unanuak ondutako argitalpena kaleratuko du. Lan horretan, egileak mende bateko ibilbideari errepaso sakona

egiten dio, astearteko azokaren sorrera eta bilakaera jasoz, eta aldi berean, azoken jatorriaz eta Beasainek Euskal Herriko merkatu sarean izan duen lekuaz hausnartzen du. Oroimen historikoa, testigantzak eta irudiak uztartzen dituen bidaia da, herriaren memoria kolektiboa aberasten duena.

Azokaren historian zehar, Beasaingo baserriek eta lehen sektoreak izan duten pisua agerikoa da. Bertako eta garaian garaiko produktuak izan dira beti azokaren ardatz, tokiko ekonomiari eutsiz eta elikadura eredu hurbil eta jasangarria sustatuz. Aldi berean,

azoka herri nortasunaren isla izan da: baserritik herrira eta herritik baserrira doan lotura biziaren adierazgarri.

Mendeurren hau ospatzeko asmoz, Beasaingo Udalak egitarau berezia antolatu du, azokaren iragana, oraina eta etorkizuna herritarrekin partekatzeko helburuarekin.

ASTEARTEKO
AZOKAK
MENDEA BETE DU

LA FERIA SEMANAL
DEL MARTES
CUMPLE UN SIGLO

Juantxo Unanua Arizola



OTSAILAK 3 FEBRERO - ASTEARTEKO AZOKA, MENDE BAT

→ **8:30 Artisau lanbideen erakusketa** / Exposición de oficios artesanos

→ **8:30 Garai bateko nekezaritzako lanabesen erakusketa**, Zubimuzu plazan / exposición de antiguas herramientas agrícolas

→ **Goizean zehar: azokaren historiari lotutako argazkien erakusketa** / Durante la mañana: exposición de foto-

gráficas vinculadas a la historia del mercado

→ **10:30 Kaxolako Iker Markinezek azokako produktuekin prestatutako pintxo-dastaketa** / degustación de pintxos elaborados con productos del mercado, a cargo de Iker Markinezek de Kaxola

→ **10:30 Loinatz Musika Eskolako trikitilari eta pandero-joleen emanaldia** / actua-

ción de trikitilaris y panderojoleak

→ **13:00 Azokako baserri-tarrentzako hamaiketako** / hamaiketako para las y los baserritarras del mercado.

Orain Beasainen egindako erosketak etxeko atariraino

*Kosturik gabe, doan jarri dezakezu
takila bat zure atarian erosketak
bertan jasotzeko*



— tori! —

04

BEASAINDIK

Tori! ekimena iaz jarri zuen martxan Beasaingo Udalak, hainbat erakunderekin elkarlanean, tokiko merkataritza indartu eta erosketen banaketa erosoagoa eta jasangarriagoa izan zedin. Lehen fase hartan, udalerriko bost gunetan jarri ziren kalean erabilera publikoko takilak, eta harrera oso positiboa izan zuen zerbitzuak.

Orain, ekimenak urrats berria eman du: helburua da beasaindarek beren etxebizitzan atarietan takila bat jartzea, erosketak are gertukoago eta errazago jasotzeko. Pauso honekin, Tori! sistemak eguneroko beharrei are hobeto erantzun nahi die, herritarren erosotasuna eta tokiko merkataritzaren lehiakortasuna ardatz hartuta.

Zergatik jarri takila bat etxeko atarian?

- Azokako eta atxikitako merkatarien erosketak etxean bertan jasotzeko, paketea noiz iritsiko den kezkatu gabe.
- Ez daukazu etxean egon beharrik entrega egiteko unea.
- Etorkizunera begira, Correos, DHL edo antzeko operadoreak integratzeko aukera, ohiko banaketa eraginkorragoa izan dadin, trafikoa murriztuz eta bide segurtasuna hobetuz.

Doakoa eta jasangarria, hasieratik amaierara

Tori! ekimenaren ezaugarri nagusietako bat da bizilagunentzat inolako kosturik ez izatea:

- Takila doakoa da, Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %100ean finantzatua.
- Banaketa ere doakoa da, udalaren babesarekin eta triziklo bidezko zerbitzu jasangarriaren bidez.

Helburua argia da: Beasaingo azoka eta tokiko merkataritza indartzea, eta plataforma handiek eskaintzen duten etxez etxeko banaketari benetako aukera jasangarria eskaintzea.

★ Eskatu zure
atarirako takila bat
DOAN
Solicita una taquilla
para tu portal
GRATIS





Nola funtzionatzen du takilak?

Sistema oso erraza da. Erosketa takillan uzten denean, erabiltzaileak NORMO aplikazioaren bidez jasotzen du jakinarazpena. Takila irekitzeko bi aukera daude:

- Mugikorraren Bluetooth-a erabiliz.
- Edo kode numeriko baten bidez.
- Nola eskatu takila bat komunitatean?
- QR kodearen bidez inprimakia beteta edo komunitateko administrazioileari eskatuta.

Takillen kopurua mugatua da, beraz, interesa duten komunitateei lehenbailehen eskaera egitea gomendatzen zaie.



Ahora puedes recibir las compras realizadas en Beasain en tu portal

El proyecto Tori!, impulsado el año pasado por el Ayuntamiento de Beasain en colaboración con distintas entidades, nació con el objetivo de reforzar el comercio local y ofrecer un sistema de reparto más cómodo y sostenible. En su primera fase, se instalaron taquillas públicas en cinco puntos del municipio, con una valoración muy positiva por parte de la ciudadanía.


Ahora, la iniciativa da un nuevo paso adelante: llevar las taquillas a los portales de las viviendas, facilitando aún más la recogida de compras y adaptándose a las necesidades actuales de las y los beasaindarras. Las taquillas permiten recibir compras del mercado y de los comercios adheridos sin necesidad de estar en casa.

Además, el proyecto contempla a futuro la integración de operadores logísticos, lo que permitirá reducir el tráfico y mejorar la seguridad vial.

Tanto la taquilla como el reparto son totalmente gratuitos, financiados por el Ayuntamiento de Beasain y la Diputación Foral de Gipuzkoa, y se realizan mediante un sistema de distribución sostenible en triciclo.

El funcionamiento es sencillo a través de la app NORMO, que notifica la entrega y permite abrir la taquilla mediante Bluetooth o código numérico. Las taquillas pueden solicitarse a través de un formulario (QR Tori!) o mediante el administrador de fincas, y la oferta es limitada hasta fin de existencias.





Bonberia kulturgunea eta Gazteleku berria eraikitzeko lanak martxan

Beasaingo Udalak hasi ditu Bonberia eraikina kultur-gune bihurtzeko lanak eta Gazteleku berria eraikitzeko obrak. Bi proiektuak abenduan onartu ziren, eta udalaren kultura eta gazteria arloetako estrategiaren ardatz nagusiak dira.

Bonberia, Arana kalearen biziberritzearekin lotuta, espazio ireki, irisgarri eta malgua izango da, musika, antzerkia, erakusketak eta bestelako kultur jarduerak hartzeko prestatua. Lanek sei hilabeteko iraupena izango dute.

Bestalde, Oriamendi kalean kokatuko den Gazteleku berria 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako topagune hezitzaile eta parte-hartzailea izango da.



Gazteen ekarpenak kontuan hartuta diseinatu da, eta obrak 16 asteko iraupena izango dute.

Bi egitasmoek helburu bera partekatzen dute: Beasaingo bizi-kalitatea hobetzea, espazio publikoak berrakibatuz eta komunitatearen kohesioa indartuz.

★ Bonberia berritzeko lanek sei hilabeteko iraupena izango dute; Gazteleku berriaren obrek, berriz, lau.



Arrancan las obras de Bonberia y del nuevo Gazteleku

El Ayuntamiento de Beasain ha iniciado las obras de rehabilitación de Bonberia como nuevo espacio cultural y la construcción del Gazteleku. Bonberia será un equipamiento cultural abierto y accesible, vinculado a la revitalización de Arana kalea.

El nuevo Gazteleku, situado en Oriamendi kalea, será un espacio educativo y participativo para adolescentes de 12 a 17 años, diseñado a partir de sus necesidades. Ambos proyectos refuerzan la apuesta municipal por la cultura, la juventud y la cohesión social.

Loinazko San Martin eguna eta Santa Ageda jaiak, otsailaren 5ean



9:15

Kofradien harrera eta bilkura on-
getorria ahogozagarriekin
Igartzako jauregian

9:30

Goizeresi txistulari taldearen eta
Musika Eskolako txistularien diana

10:20

Kofradien desfilea Goizeresi txis-
tulari taldea eta Musika Eskolako
txistulariak lagunduta. Igartzatik
irten, San Martinen estatuara iritsi
eta lore eskaintza egingo dute.
Ondoren, Ohorezko aureskua
dantzatuko da.

11:00

Meza Nagusia, Andre Mari Zerura-
tuaren parroki elizan.

11:00

Odolki dastatze herrikoa

12:00

Musika Eskolako Arantzazu Saiz
piano-jotzailea eta Xabier Zeberio
Nyckhel arpa-jotzailearen ema-
naldia.

12:00

Kofradiaren XXXIX. Kapituluaren
ospakizuna eta ohorezko Kofra-
dekidearen izendapena, Karloa
Arguiñano izendatuko da aurten
ohorezko kofradekide, Loinazko
San Martin plazan. Ondoren,
kofradiei hamaiketakoa eskainiko
zaie.

14:00

Adiskidetasun bazkaria Loinazko
San Martin plaza azpian

17:00

Murumendi pilota eskolako
haurren pilota partidak Gernika
Pasealekuko frontoian

18:00

Bentazaharreko mutiko alaiak"
taldeak kalea girotuko du.



Beasainek bere zaindariaren eguna
ospatuko du otsailaren 5ean,
ostegunez, Loinazko San Martin
egunaren egitarau zabalarekin. Goi-
zean goizetik hasiko dira ekitaldiak,
kofradien harrerarekin Igartzako
jauregian eta txistularien diana eta
desfilearekin. San Martin estatuaren
aurrean lore eskaintza eta ohorez-
ko aureskua eskainiko dira, eta
ondoren Meza Nagusia ospatuko
da Andre Mari Zeruratuaren parroki
elizan.

Egunean zehar hainbat jarduera
izango dira, besteak beste odolki
dastatze herrikoa, Musika Eskolako
ikasleen kontzertua eta Kofradiaren
XXXIX. Kapituluaren. Aurten, Karlos
Arguiñano izendatuko dute ohorezko
kofradekide. Jai giroak arratsaldean
jarraituko du Murumendi pilota esko-
lako haurren partidekin eta "Benta-
zaharreko mutiko alaiak" taldearen
kale animazioarekin. Urbiberri
egoitzak ere zaindariaren eguna
ospatuko du bazkide adinekoenei
omenaldia eskainiz.

Matxinbenta auzoan Santa Ageda

Bestalde, Matxinbenta auzoan
Santa Ageda jaiak ospatuko dira
urtarrilaren 30etik otsailaren 5era bi-
tarteetan. Egitarauan mus txapelketa,
erraldoi eta buruhandiak, txokolata-
da, magia ikuskizuna, bertso-afaria,
herri kirolak, pilota partidak eta meza
izango dira, auzoko giroa eta elkarbi-
zitz indartzeko helburuarekin.

★ Destaca el
nombramiento de
Karlos Arguiñano
como cofrade
de honor.

Santa Agueda en Matxinbena

Beasain celebrará el 5 de febrero el día de su patrón,
San Martín de Loinaz, con un completo programa
que incluirá actos institucionales, música, degusta-
ciones, deporte y animación durante toda la jornada.
Destaca el nombramiento de Karlos Arguiñano como
cofrade de honor. El centro social Urbiberri celebrará

el día del patrón homenajeando a sus socio y socia más
veteranos. Además, el barrio de Matxinbenta celebrará
las fiestas de Santa Águeda entre el 30 de enero y el 5 de
febrero, con actividades populares como campeonatos,
espectáculos, bertsolaris, deporte rural, pelota y actos
religiosos.

2026ko Zergen Egutegia | Calendario Fiscal 2026



2026. urterako aurreikusi diren
borondatezko kobrantza-epeak

Helbideratutako ordainagiriaren
kobrantza-eguna

URTEAN BEHIN ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK ETA TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL

Egoiliarrentzako Aparkalekua Aparcamiento para residente	2026.03.01 - 2026.04.30	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica	2026.02.01 - 2026.03.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)	2026.05.15 - 2026.06.30	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzea Entrada de vehículos en fincas urbanas	2026.09.01 - 2026.10.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Ibilgailuen geraldak eta kokagunea Parada y situación de vehículos	2026.09.01 - 2026.10.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)	2026.10.01 - 2026.11.10	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Kioskoak herri-bidean Quioscos en la vía pública	2026.10.01 - 2026.11.30	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario

HIRU HILABETERIK BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD TRIMESTRAL

Azoka 1. hiruhilekoa Mercado 1.er trimestre	2026.02.01 - 2026.03.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Azoka 2. hiruhilekoa Mercado 2. trimestre	2026.04.01 - 2026.05.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Azoka 3. hiruhilekoa Mercado 3.er trimestre	2026.07.01 - 2026.08.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Azoka 4. hiruhilekoa Mercado 4. trimestre	2026.10.01 - 2026.11.30	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario

SEI HILABETERIK BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL

Zabor-bilketa 1. ordainketa Recogida de basuras 1.er pago	2026.03.01 - 2026.04.30	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario
Zabor-bilketa 2. ordainketa Recogida de basuras 2. pago	2026.09.01 - 2026.10.31	Borondatezko epearen azken eguna Último día del periodo voluntario

HILABETERO ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Musika Eskola	Hil bakoitzaren 24. egunetik hilaren azken egunera arte (irailtik ekainera) Entre el día 24 y el último día de cada mes (de septiembre a junio)
Euskaltegi	Hil bakoitzaren 1 egunetik 5.era bitartean (azarotik ekainera) Entre los días 1 y 5 de cada mes (de noviembre a junio)



OHARRA / AVISO

Abenduko udal aldizkarian akats bat zuen
zerga-egutegia argitaratu zen. Egutegi fiskal
eguneratu eta zuzena da orain zabaltzen dena.

En la revista municipal de diciembre se publicó un
calendario fiscal con un error. El calendario fiscal
correcto y actualizado es el que se difunde ahora.